

20 urtetik beherako gero eta gazte gehiagok irakurtzen dute denbora pasatzeko

Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 54k irakurtzen dute denbora-pasa moduan eta hamarretik bik idazten dute jarduera artistiko moduan


Apirilaren 23an **Liburuaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek irakurtzen dituzten liburuak denbora pasatzeko azalduko du, bai eta zenbat gaztek idazten duten idazkera jarduera artistikotzat hartuta.

2016an Gazteen Euskal Behatokiak 1500 gazteri egindako inkesta batean emandako erantzunen arabera, gazteen % 54k diote inkesta egin aurreko azken hilabetean libururen bat irakurri dutela denbora pasatzeko (lana edo ikasketak direla-eta irakurri ahal izan dituztenez aparte).

Lanarekin edo ikasketekin lotuta ez dauden liburuak irakurtzea ohikoagoa da gazteen artean Euskadiko biztanleria osoan baino (% 42, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, [2014-2015eko "Kultura-ohiturei eta praktikei buruzko inkesta"n](#) argitaratutako datuen arabera).


Emakume gazteen artean ohikoagoa da denbora pasatzeko irakurtzea, gizon gazteen artean baino (% 60 eta % 49, hurrenez hurren), nahiz eta nesken artean portzentajea pixka bat jaitsi den 2012an eginiko ikerketatik hona eta mutilen artean, aldiz, igo.

15 eta 19 urte bitartekoen taldea da bilakaerarik positiboena izan duena 2007tik hona. 2007an datu eskasena zituzten (% 36 baino ez) eta 2016an, aitzitik, 20 urtetik gorakoen portzentajeak baino altuagoak (% 58, hain zuzen ere).



Gainera, gazteen % 21ek diote azken urtean idatzi dutela, idazkera jarduera artistikotzat hartuta eta ez beharrekotzat.

Azken urteetan idazten dutenen portzentajea asko handitu da eta orain bost gaztetik batek idazten du.



Adinaren arabera desberdintasunak daude eta berriro ikus dezakegu 15-19 urte bitarteko taldekoak nabarmentzen direla, hauek baitira proportzio handienera idazten dutenak (% 26).

Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak lotuta daude, dudarik gabe, hazkunde horrekin. Hori dela eta, normala da gazteek biztanleria osoak baino gehiago idaztea, gazteek gehiago erabiltzen baitituzte teknologia berri horiek. Euskadin 15 eta 29 urte bitartean % 21ek idazten dutela adierazten dute eta 15 urtetik gorako biztanleria osoan, aldiz, % 7,6k baino ez. Azken datu hori Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eginiko [2014-2015eko Kultura-ohiturei eta praktikei buruzko inkestan](#) argitaratuta dago.

Crece la lectura por ocio entre la juventud vasca menor de 20 años

El 54 % de la juventud de 15 a 29 años lee por placer y 2 de cada 10 escriben como actividad artística


Con motivo del Día Internacional del Libro, 23 de abril, el Observatorio Vasco de la Juventud presenta datos relativos a la lectura de libros por parte de las personas jóvenes de Euskadi de entre 15 y 29 años.

Según los resultados de una encuesta realizada en 2016 por el Observatorio Vasco de la Juventud a una muestra representativa de 1500 jóvenes, el 54 % de la juventud afirma haber leído algún libro por motivo de ocio (independientemente de los que haya podido leer por trabajo o estudios) en el mes previo a la realización de la encuesta.

El porcentaje de lectura no vinculada al trabajo o estudios es mayor en la juventud que en la población general de la CAPV (42 %, según datos publicados por el Ministerio de Educación, Cultura y Deportes de España, en su Encuesta de Hábitos y Prácticas Culturales 2014-2015).


La lectura por ocio es más frecuente entre las mujeres jóvenes (60 %) que entre los hombres jóvenes (49 %), aunque el porcentaje ha descendido algo entre las chicas respecto al último estudio de 2012 y ha aumentado entre los chicos.

El grupo de 15 a 19 años es el que presenta una evolución más positiva ya que si en 2007 eran quienes presentaban el menor porcentaje de lectura por ocio, en 2016 superan a quienes tienen 20 o más años.



Además un 21 % afirma que en el último año ha escrito como actividad artística.

En los últimos ocho años el porcentaje de jóvenes que escribe ha aumentado mucho hasta alcanzar a uno de cada cinco.



La edad establece diferencias en esta actividad y son de nuevo quienes tienen entre 15 y 19 años quienes practican esta actividad en mayor medida (26 %).

Las posibilidades que brindan las nuevas tecnologías tienen, sin duda, mucho que ver en el aumento de esta práctica y explican que la juventud, con un contacto mayor con estas herramientas, la realice en mayor medida que el conjunto de la población. Entre los 15 y los 29 años el 21 % dice que escribe frente al 7,6 % del conjunto de la población de 15 o más años, según los datos de la Encuesta de Hábitos y Prácticas Culturales 2014-2015 del Ministerio de Educación, Cultura y Deportes de España.

¡Síguenos en las redes sociales!



Enlace al Observatorio Vasco de la Cultura en castellano:

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19130/es/>

Enlace a la Encuesta de Hábitos y Prácticas Culturales 2014-2015 del Ministerio de Educación, Cultura y Deportes:

<http://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/cultura/mc/ehc/2014-2015/presentacion.html>